



Gabriel Aresti 1975-2025



Gabriel Arestik ikuspuntu literariotik bide aberats, original eta emankorrak sortu zituen, eta euskalduntasuna ulertzeko modu berriak ireki. Bide-urratzailea izan zen, eta euskal literatura eta pentsamendu modernoaren oinarri eta erreferente zalantzagabea da.

Eka. 19 - Eka. 20 2025

Kod. K03-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 19 - Eka. 20 2025

Kokalekua

Euskaltzaindia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

50 urte pasatu dira Gabriel Aresti hil zenetik; eta mende erdiko tarteak esanahi berezia hartzen duela, UPV/EHUko Gabriel Aresti Katedrak eta Euskaltzaindiak Uda Ikastaro hau antolatu dute, hain zuzen, Gabriel Aresti eta haren lana hizpide hartuta.

Gabriel Arestik ikuspuntu literariotik bide aberats, original eta emankorrak sortu zituen, eta euskalduntasuna ulertzeko modu berriak ireki. Bide-urratzailea izan zen, eta euskal literatura eta pentsamendu modernoaren oinarri eta erreferente zalantzagabea da. Gainera, gogoratu behar da 1953an Merkataritza Peritu ikasketak amaitu zituela Elkano Merkataritza Eskolan, gaur egun, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko atalean, eta 1957tik aurrera euskaltzain urgazle izan zela.

Ikastaroa antolatzen elkarlanean bildu dira Euskaltzaindia eta UPV/EHUko Gabriel Aresti Katedra, eta laguntzaile izan dira Bizkaiko Foru Aldundia, UPV/EHU eta Gabriel Aresti Kultur Elkarteak.

Helburuak

Gabriel Aresti eta hura bizi izan zen garaia, 50eko hamarkadatik 70ekora, hobeto ulertzea.

Idazlearen lanak landu eta osatu zireneko testuinguru soziokultural eta ekonomiko-politikoa aztertzea.

Gabriel Arestiren lanaren inguruan gogoeta egitea.

Antolakuntza



ehukultura



Lankidetzak



Programa

2025-06-19

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Irekiera Instituzionala
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Gabriel Aresti 1975-2025 Uda Ikastaroaren aurkezpena Patxi Juaristi Larrinaga UPV/EHU - Gabriel Aresti Katedraren Zuzendaria Beatriz Zabalondo Loidi UPV/EHU - Gabriel Aresti Katedraren idazkaria
09:45 - 10:30	“Gabriel Aresti, Bilbo eta modernitatea” Joseba Zulaika Irureta Antropologoa
10:45 - 11:15	“Estetika, politika eta kultura: Gabriel Aresti eta kulturgintzaren autonomiaren afera” Asier Amezaga Etxebarria UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
11:15 - 11:45	“Gabriel Arestiren garaia: kultura, euskara, kultur mugimenduak...” Larraitz Ariznabarreta Garabieta Deustuko Unibertsitatea - Irakaslea
12:00 - 12:30	Atsedena
12:30 - 13:00	“Harri murruei mailuka: idatziaren mugak eta heterodoxia Arestiren garaian” Amaia Elizalde Estenaga UPV/EHU - Mikel Laboa Katedraren zuzendaria eta UPV/EHUko irakaslea
13:00 - 13:30	“Informalistentik "movidara". Zelatutako artea” Ismael Manterola Ispizua UPV/EHU - Arte Ederren Fakultateko Dekanoa eta UPV/EHUko irakaslea
13:45 - 14:00	Sintesia

2025-06-20

09:00 - 09:45	“Nola irakurri Gabriel Aresti XXI. mendean” Kirmen Uribe Nueva Yorkeko unibertsitatea - Idazlea
10:00 - 11:00	“Arestiren Antipoesia: Perez y Lopez Marmolistas, Derio” Lourdes Otaegi Imaz UPV/EHU Alex Gurrutxaga Muxika UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
11:15 - 11:45	Atsedena

11:45 - 12:15	“Antzerkia Arestiren euskal modernitatea eraikitzeko baliabide kolektibo gisa” Idoia Gereñu Odriozola Irakaslea
12:15 - 12:45	“Ipuin triste, barregarri, garratz, lotsagarri, zahar eta itsusiak: Gabriel Arestiren narraziogintza” Mikel Ayerbe Sudupe UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
13:00 - 13:15	Sintesia
13:15 - 13:30	Gabriel Aresti Katedrak euskal kulturari eta Gabriel Arestiri buruz egindako bideoaren emanaldia

Zuzendaritza



Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) .Unibertsitateko irakasle Titularra da, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.




Beatriz Zabalondo Loidi

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA, UPV/EHU, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea

Doktore da (2014-12-3), Komunikazioan. Ikus-entzunezko euskal itzulpengintzaren inguruan egin du tesia, EHUn. 2011tik irakasle da EHUn; aurretik, zazpi urtez irakatsi zuen Mondragon Unibertsitatean. Unibertsitatean sartu baino lehen, euskal hedabideetan aritu zen lanean: 25 urtez, EITBrako ikus-entzunezko itzultzaile-egokitzaile gisa; telebistan, barne produkzioko serieetan, aktoreen hizkera zaintzen (Duplex, Martin, Goenkale...), eta prentsan, zuzentzaile (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Urte horien fruitu dira ikus-entzunezko hizketa moldeei buruzko tesia eta hainbat argitalpen zientifiko, eta prentsarako estilo liburuak (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kide da 2011ko ekainetik, eta presidentea, 2013ko ekainetik.


Irakasleak



Asier Amezaga Etxebarria

Euskal Herriko Unibertsitatea

Iraskaslea Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea Soziologian doktorea da. Inor ez delako profeta bere mendean. Gabriel Aresti egunean (Erein, 2018) eta Gabriel Aresti eta euskal kultura esparrua (1953-1975) (UEU, 2022) liburuak argitaratu ditu. Eremu digitalean ematen diren harremanen gaineko ikerketak egin ditu eta, zentzu zabalago batean, kultura berrikuntzarako azpiegituren inguruan. INNOKLab ikerketa taldeko kidea da, diseinuan oinarritutako ikerketa metodologiekin lan egiten du bertan.



Larraitx Ariznabarreta Garabieta

Center for Basque Studies

Larraitx Ariznabarreta (Bilbao 1968) graduated and obtained her Doctorate at the University of Deusto, Bilbao. She has taught at Boise State University and the University of Deusto (Basque Country, Europe). Her fields of research deal with the analysis of various expressions of Basque culture and its relations with power. She is the author of the books *Martin Ugalde: Cartografías de un discurso* (Ekin. Buenos Aires, 2015) and *Notes on Basque Culture: The aftermath of epics* (CLAEH, Montevideo, 2019). She is also the editor of several volumes. Her last articles include "Siete casas en Francia: balance revisado" [El mundo está en todas partes. El universo literario de Bernardo Atxaga (Anthropos, 2018)]; "Without exile who am I? Metaphors of Basque Exile and Discursive Traces of Subalternity" [National Identities at the Crossroads: Literature, Stage and Visual Media in the Iberian Peninsula (Francis Boutle, 2018)]; "Women Bertsolari's Presence in a Sort of History's Comeback" [Female Impr



Mikel Ayerbe Sudupe

MHLI. UPV/EHU


(Azpeitia, 1980). Literatur Teoria eta Literatura Konparatuan lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitatean (UB) eta Euskal Filologian Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean dihardu euskal literaturako eskolak ematen. Era berean, euskal literaturaren baitan sorkuntza prozesuen, idazketa bertsioen eta berridazketen bilakaeraren garrantzia aztertu du Euskal literatura kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai tesian (2016). Gerra Zibilaren eta egungo gatazka sozio-politikoaren inguruko ipuinak biltzen dituzten *Our Wars: Short Fiction on Basque Conflicts* (Center for Basque Studies, 2012) eta *Nuestras guerras: relatos sobre los conflictos vascos* (2014) apailatu ditu batetik; eta bestetik, Euskal Narratiba Garaikidea: Katalogo bat lanaren egilea ere bada.



Amaia Elizalde Estenaga

MHLI. UPV/EHU

(Donostia, 1988). Hispaniar Filologian (2011) eta Euskal Filologian (2012) lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV) eta mugikortasun programen bitartez egonaldiak egin ditu Mexikoko UNAMen eta Pau-eko UPPAn. Bordeaux-Montaigne (UBM) unibertsitatean Master Recherche Études Basques gauzatu zuen (2013) eta egun doktoregaia da literaturaren alorrean. Ikerketa-proiektua kotutoretzan gauzatzen ari da EHU/UPV eta UMBrekin. Euskal literaturaren 50-60ko hamarkadetako berpizte eta berritze kulturalaren testuinguruan, Jon Mirande XX. mendeko euskal idazle madarikatu paristarra eta bere Haur besoetakoa (1970) eleberriaren analisia nahiz harrera ditu aztergai. Horretarako, 2014an EHUn "Tesiak Euskaraz egiteko Doktorego aurreko Ikertzaileak prestatzeko kontratazioa" jaso zuen.



Idoia Gereñu Odriozola

Ehu

Filosofian lizentziaduna (EHU) eta Giza Zientzietan doktorea (2016, Carlos III) Jarrai (1959-1968), euskal teatroaren abangoardiako ikur tesiari esker. XX. mendeko euskal antzerkia ikertzen du eta horren fruitu dira, besteak beste: Antzerki 75 urte ondoren (EtorOstoa, 2007); 'Gure antzerki idatzia 1936ko erbestealdian' (Hamaika Bide, 2012). 'Teatroaren mututzea XX. mendean' (Euskera, 2018); 'La supresión en el teatro vasco' (Peter Lang, 2020); 'Euskal teatro amateurren definitzeko erreferentzia historikoen bilakaerarekiko hurbilpen kritikoa' (Egan, 2021); 'Living Theatrearen Antigone Donostian izan zenekoa' (Egan, 2023); 'Salvatore Mitxelenaren Erri bat guruzbidean...' (UNED, 2023). EHAZEko koordinatzailea eta, EHUn eta UEUn irakaslea izana da. Gaur egun, GANBILA argitalpen-taldeko kidea, KATIUSKA antzerki taldeko zuzendaria eta Bigarren Hezkuntzan Filosofiako irakaslea da.



Alex Gurrutxaga Muxika

EHU

Alexander Gurrutxaga Muxika doktorea da Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian (2020), eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea 2016tik, Gasteizko Hezkuntza Fakultatean. Euskal Filologia eta Literatura Konparatua ikasi zituen, eta Xabier Leteren obrari buruzko tesiarekin doktoratu zen, Lourdes Otaegiren zuzendaritzapean. 2013-2021 bitartean Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan ikerketa taldeko kide izan zen, eta egun Literatura Dokumentu Historiko Gisa izeneko ikertaldean dabil. Xabier Leteren, aberriaren poeta kantaria saiakeraren egilea da (2020, Euskadi Saria), eta Xabier Leteren lirika osoa argitaratu du Lourdes Otaegirekin (Poema eta abestia guztiak, 2022). Literatura Unibertsala (Batxilergoa I) (2016) testuliburuaren egileetako bat da, eta berriki Anjel Lertxundi: idazlea eta obra (2024) liburua koordinatu du Beatriz Zabalandorekin batera. Dibulgazio eremuan, literatura kritikari gisa kolaboratu du, hala hitzaldi-solasaldi formatuan nola artikulua argitaratuz (Berria, Erlea, Euskadi Irratia, etab.), eta Joana Otxoa de Alaiza pianistarekin batera Txori kantazale ikuskizuna eta disko-liburua sortu ditu (Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria 2020).



Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) .Unibertsitateko irakasle Titularra da, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.



Ismael Manterola Ispizua

MHLI. UPV/EHU

(Zumaia, 1966). Arte Historian lizentziatu zen Valentziako Unibertsitatean eta doktoregoa EHU/UPVn gauzatu zuen Arte Historian. Egun EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean Artearen Historia irakasten dihardu. Egunkarian, Berrian eta Garaegunkariko Mugalari gehigarrian arte kritika idatzi du. Gure Artea 2006 (2006) eta Bilbea eta Hari askeak: euskal artearen bi bildumen arteko elkarrizketa (2014) izeneko erakusketak antolatu ditu. Bere agitalpenen artean daude, besteak beste, 2012an UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik kaleratutako Raemaekersen Marrazkiak: Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran liburua eta Autonomía e ideología (2016) liburuko "Compromiso o especificidad del medio. Arte en el País Vasco en las últimas décadas del siglo XX" atala.



Lourdes Otaegi Imaz

UPV/EHU

Euskal Filologian lizentziatua (1982) eta Literatura arloan doktore (1992) Deustuko Unibertsitatean. Literatura Konparatuko postgradua egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean. Euskal literaturan espezializatu da eta zenbait azterketa monografiko burutu ditu Bigarren Errepublikaren garaiko Euskal Pizkundeari buruz, eta bereziki Xabier Lizardi idazleari buruz. Literatura garaikideari buruzko Ikerketa Proiektuetan parte hartu du, eta azterlan horien emaitza zenbait artikulu zientifiko eta liburu-ataletan mamitu da. Euskaltzaindiaren urgazle da eta Literatura Ikerketa Batzordearen kide da 1998tik hona (idazkari, 2000-2008), Literatura Terminoen Hiztegia egitasmoa koordinatuz (2008). Irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Gisa berean, Baionako Master 1-en irakasten du (Univ. Michel de Montaigne Bordeaux III, Frantzia) eta UNED Unibertsitatearen Masterrean XIX. mendera arteko Euskal Literaturaren ikasketen arduradun da.



Kirmen Uribe

Kirmen Uribe-ek lau nobela eta hiru poema-liburu idatzi ditu. Bere liburuak hogeitik gora hizkuntzatara daude itzuliak. Besteak beste, Espainiako Narratiba Saria, Kritika Saria, 111 Akademia edo Eusko Ikaskuntza Saria irabazi ditu, azken hau, "euskararen nazioarteko enbaxadore" izatearren. 2018an New Yorkeko Liburutegiaren idazketa beka prestigiotsua jaso zuen eta geroztik New Yorken bizi da, non New Yorkeko Unibertsitateko (NYU) idazketa kreatiboko masterrean irakasle den. Astero podcasta bidaltzen du bertatik Berria egunkarirako. 2025eko irailean, Asier Altunak Karmele filma estreinatuko du, Uriberen Elkarrekin esnatzeko ordua eleberrian oinarritua.



Beatriz Zabaldondo Loidi

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA, UPV/EHU, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea

Doktore da (2014-12-3), Komunikazioan. Ikus-entzunezko euskal itzulpengintzaren inguruan egin du tesia, EHU-n. 2011tik irakasle da EHU-n; aurretik, zazpi urtez irakatsi zuen Mondragon Unibertsitatean. Unibertsitatean sartu baino lehen, euskal hedabideetan aritu zen lanean: 25 urtez, EITBrako ikus-entzunezko itzultzaile-egokitzaile gisa; telebistan, barne produkzioko serieetan, aktoreen hizkera zaintzen (Duplex, Martin, Goenkale...), eta prentsan, zuzentzaile (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Urte horien fruitu dira ikus-entzunezko hizketa moldeei buruzko tesia eta hainbat argitalpen zientifiko, eta prentsarako estilo liburuak (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kide da 2011ko ekainetik, eta presidentea, 2013ko ekainetik.



Joseba Zulaika Irureta

Joseba Zulaika es antropólogo y profesor emérito del Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Nevada. Ha publicado etnografías de pescadores, cazadores, agricultores, artistas, soldados, así como de ETA. Ha escrito sobre el discurso del terrorismo y contraterrorismo, incluyendo su último libro sobre la guerra de drones (2020). Ha trabajado también en la renovación urbana de Bilbao; entre sus publicaciones se halla Vieja luna de Bilbao.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-19 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Euskaltzaindia

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo.

Bizkaia